

Ttipi- Ttapa

*Larre motzean
adoretsu,
euskararen baratzean
eredu*



Argitaratzaile:
Andoaingo Udala.
Euskararen Normalkuntzarako
Lansaila.
Goikoplaza, z/g.
20.140 Andoain.
Tel.: 943 300 830.



Ekoizle:
Erroitz, b.m.
Hedabide eta iragarbideak.
Dr. Huizi kalea, 15-1. esk.
20.140 Andoain.
Tel.: 943 300 732.

Ekoizpenburu, erredaktore:
Jon Ander Ubeda.

Laguntzaile:
Ainhoa Arozena, Garbiñe
Ugartemendia, Jon Unanue.

Diseinatzaile:
Maddi Trutxuelo.

Argazkiak: Maddi Trutxuelo,
Ttipi-Ttapa artxiboa.

Irarkola: Antza, S.L.
(Lasarte-Oria).

Lege-gordailua: SS-860-2009.
700 aleko argitaraldia egin da.
2009ko ekaina.

Andoaingo Udalak XXI. Rikardo
Arregi Kazetaritza Sariaren
Ohorezko Aipamenaren kariaz
bereziki egindako argitalpen
osagarria.

© Andoaingo Udala.

Gutziz galarazita dago
argitaratzailearen baimen idatzirik
gabe argitalpen honen aldakirik
egitea edo hori berrargitaratzea
edozein bitartekoz baliaturik.

Esker ona:
Argitaratzaileak bere esker ona
adierazi nahi die argitalpen hau
osatzeko laguntza eman duten
erakunde eta lagun guztiei, bereziki,
Gipuzkoako Ahalduen Nagusiaren
Kabineteari, Eusko Jaurlaritzako
Kultura Sailari eta Topagunea
euskara elkarten federazioari.



Aurki-bidea

XXI. Rikardo Arregi Kazetaritza Saria 2008/09

Epaimahaikideak.....	4-5
Ohorezko Aipamena, azken erabakia.....	6
Andoaingo Alkatearen adierazpena.....	7
Atarikoak.....	8-10
Mahai-ingurua.....	11-31
Karmen Irizar.....	32

RIKARDO ARREGI KAZETARITZA SARIA






XXI. Rikardo Arregi Kazetaritza Saria 2008/09

Epaimahaia

Estanis AMUCHASTEGUI ARREGUI
(Andoain, 1952)

Oso gaztetandik, ogibide izan duen elektrizista ikasketak egitearekin batera, Frankismo garaiko giro politikoan murgildu zen, ezkerreko mugimenduetan, 1970. urtean PCE (I) alderdian afiliatu arte. Handik gutxira, beste kide batzuekin batera PTE-era jo zuen eta ondoren Euskadiko Ezkerrera, eta bertatik PSE-erekiko bat egitea bultzatu zuen Andoainen. CENIA enpresako langile izan da urtetan eta 2000. urtean Andoaingo Udalera sartu zen udalkide gisa. Alkateorde izan da azken bi agintaldietan eta autengo maiatzaz geroztik Alkate.

RAKS epaimahaikide: 2008/09.

**Alazne AIESTARAN YARZA**
(Ermua, 1972)

Kazetaritzan lizentziatua eta doktorea (EHU), Lan Harremanetan diplomatua (EHU). Irakasle da Euskal Herriko Unibertsitatean; aurrez ere langintza berean aritu zen Eskoriatzako HUHEZI fakultatean.

Komunikabide ezberdinetan egin izan du lan: Ermua eta Mallabiko herri aldizkariko zuzendari, erredakzio buru, publicitate arduradun, erredaktore nahiz euskara zuzentzaile; Ermuko telebista lokaleko (ETL) erredaktore eta kamara; Euskaldunon Egunkarian kolaborazioak... Komunikazioarekin lotuta, hainbat lan eta txosten argitaratu du.

RAKS epaimahaikide: 2007/08, 2008/09.

**Joxe ROJAS GRANJA**
(Bilbo, 1971)

Hedabide saileko sustatzailea da Topagunea Euskara Elkarrean Federazioan, horixe du bizibide nagusia. Hilean behin, Internet eta teknologiari buruzko kolaborazioak idazten ditu Aizu! aldizkarian eta GAUR 8n. Euskadi Irratiko Amarauna saioan eta Bilbo Hiria Irratian ere gai beraren inguruan solasean aritzen da. Telebistan ere badihardu, Interneti buruzko kontuak azalduz. Hain zuzen ere, ETB3ko *Nick dut Nik* saioko gidoiak idazten. Era berean, tokiko prentsarekin lotutako lanetan ere aritu izan da: besteak beste, El Correok ateratzen zuen eskualdekako gehigarri batean erredaktore, Basauriko Bost Axola aldizkaria sortu zuen taldeko kidea edo Arrigorriagako Artandape aldizkariko arduradun izandakoa.

RAKS epaimahaikide: 2008/09.

**Arantxa URRETABIZKAIA BEJARANO**
(Donostia, 1947)

Donostian sortutako hondarribitarra. Historian lizentziatuzen Bartzelonako Unibertsitatean eta kazetaritzako ikasketak bukatu gabe utzi zituen. Kazetari da lanbidez eta hainbat komunikabideetan egin du lan (Egin, ETB, Diario Vasco, El Mundo, Radio 1...). Idazle gisa poesia eta eleberria landu ditu. Azken atal honetan, besteak beste, *Zergatik Panpox*, *Aspaldian*, *Saturno eta Koaderno Gorria* obrak argitaratu ditu. Aurten bertan, Radio Euskadin, ETB-n eta Diario Vascon ari da, kolaboratzaile gisa.

RAKS epaimahaikide: 2004/05, 2005/06, 2006/07, 2007/08, 2008/09.

**Agustin ERROTABEHERE ETXEBERRI**
(Baigorri 1945)

Nekazaritza ingeniari ikasketak egin zituen Angersee-ko eskolan eta hori izan du urte askoz ogibide, lehenik irakasle gisa Hazparneko Nekazaritza Eskolan eta, ondoren, gehien bat *Lur Berri*

Kooperatiban, iparraldeko nekazari munduan murgildurik. Iparraldeko ezagutza sakon horrek eraman zuen duela urte asko kazetaritza mundura, eta 13 urtez kazetari gisa jardun zuen Euskadi Irratian eta Euskal Telebistan, baina baita aurretik eta ondoren prentsa idatzian ere Herria, Argia, La Semaine du Pays basque eta Sud-Ouest hedabideetan.

RAKS epaimahaikide: 2005/06, 2006/07, 2007/08, 2008/09.

**Aitor ZUBEROGOITIA ESPILLA**
(Etxebarria, 1972)

Informazio Zientzietan lizentziadun eta doktorea (EHU). Zenbait hedabideetan lan egintzako: Cantera, Euskaldunon Egunkaria, Aizu!, Argia eta Zenbat Gara kazetetan eta Bilbo Hiria Irratian. Euskal Idazleen Elkartearen ere ibili zen beharrean. Topagunea Euskara Elkarrean Federazioko Hedabide saileko sustatzaile ohia. EHUko Gizarte eta Komunikazio Zientzien Fakultateko irakasle izan ondoren, Mondragon Unibertsitatearen HUHEZI fakultatean ari da 2005az geroztik, Ikus-entzuzeko Komunikazioa ikasketetan. *Agirre*, *Gandi*, *Che* eta *Katalina Erauso* biografiak eta *Globalizazioaren adarrak* eta *Bidegorriak hizkuntzentzat* saiakerak argitara emanak ditu.

RAKS epaimahaikide: 2006/07, 2007/08, 2008/09.

**Nekane GOIKOETXEA AGIRRE**
(Deba, 1970)

Euskal Filologian lizentziatua eta Euskal Kulturen Diplomatu Deustuko Unibertsitatean. Hezkuntza zientzietan doktore EHU. Enpresa pribatuan hizkuntz normalizatzaile gisa jardun ondoren, 2.000 urteaz geroztik Andoaingo Udaleko euskara teknikari eta arduradun gisa dihardu eta, horrenbestez, bera dugu Rikardo Arregi Kazetaritza Sariako idazkari eta arduradun tekniko.

RAKS epaimahaikide: 1999/00, 2000/01, 2001/02, 2003/04, 2004/05, 2005/06, 2007/08 eta 2008/09.

XXI. Rikardo Arregi Kazetaritza Saria 2008/09

OHOREZKO AIPAMENA

AZKEN ERABAKIA

Ttipi-Ttapa

80ko hamarkadaren bukaeran tokian tokiko komunikabideen loraldia gauzatu zen Euskal Herriko zenbait txokotan, herri eta eskualde mailako komunikabide txikiak sortuz. Euskara talde eta kultur elkarteek bultzatu zituzten egitasmo gehienak; haien aitzindari, prentsa idatzian Ttipi-ttapa (1981) eta Arrasate Press izan ziren.

Ohorezko Aipamena jasoko dutenek honako merezi-menduak dituzte epaimahaiaren iritziz:

- Azpimarratzekoa da arlo askotan erakutsitako aitzindariak, bai produktuetan (aldizkaria kalera-tzean eta sareratzetan, lehen web gunea beraiena, Goienarekin batera lehen tokiko TB); bai kudeaketan (mugaz gaindiko hedapena edota irudi korporatiboaren berrikuntza, adibidez).
- Komunikazio-egitasmoak egoki erantzuten dio xede duen gizarte nafarrari.
- Joera eraberritzailea, inkonformista, izatea 25 urteko ibilbide guztian zehar. Etengabeko hobekuntzan jardutea.
- Egoera zailetan (TBren etena...) aurrera begiratzeko eta beste hedabide batzuekiko sinergiak bilatzeko kemenak izatea.
- Sortu zenetik gaur egun arte izan dituen eta egun dituen zailtasunak zailtasun, euskara hutsezko kazetaritzaren aldeko apustu ausarta egin izana.



Aldizkariarekin hasi eta hedabide taldea osatzera iritsi da Ttipi-Ttapa: hamaboskaria, ttipi.net webgunea eta telebista. Azken honen emisioa urte hasieran eten zuten, zoritxarrez.

40 urtez
ttipi-ttapa

Rikardo Arregi Kazetaritza Sariko Ohorezko Aipamenaren xedeetako bat ibilbide eredugarria saritzea izanik, tokiko hedabideen esparruan zaila izango da besterik aurkitzea Ttipi-Ttapakoarena bezain ibilbide luze eta oparoa izan duenik, urte asko baitira –29 urte!– Bortzirietan Ttipi-Ttapakoak lanean hasi zirenetik. Urte horietako guztietako ahalgina ez da alferrik izan, bistan da, baina ahalgina ez da izan ere nolana hiko! Hori ere bistakoa da euskaldun askorentzat. Aurten, epaimahaiak ohorezko aipamena Ttipi-Ttapa Fundazioari eman dio, azken 29 urte horietan, Nafarroako Bortzirietan euskarazko kazetaritza duin, gizartekoa eta eraginkorra sortu eta ondu delako, eta urte horietan guztietan gainditu behar izan dituzten eragozpenak ez dira gutxi izan. Beraz, bejondeiela aintzatespena euskarazko kazetaritzan aitzindari izan diren bidegile nafarrei.

Aintzatespen hori jaso dute Rikardo Arregi hil zela berrogei urte beteko diren urte honetan, zehazki uztailaren 10ean zendu baitzen, Mendaron izandako auto istripu batean. Ondo gogoan ditut Rikardo Arregi zenaren sena eta kemenak, bere ekimenetan azaltzen zuten ausardia eta adimen argitasuna; aurrean banekusa bezalaxe gogora dator kit nola oldartzen zitzaizen bizi-bizi bere hitzaldietan iraganen bizi zen herri baten inertziei; haren bizitasuna, haren aiurria eta



Estanis AMUCHASTEGUI ARREGUI
Andoaingo Alkatea

indarra, eta haren sinesmena eman behar zuten urrats bakoitzean.

Askatasuna zuen giltzarri Rikardok bere ekimenen eta ez zituen onartuko iraganarekin lizundutako lotura ustelak, are gutxiago aldian aldiko inguruneak ezartzen zizkion debeku, mehatxu eta eragozpenak. Bazuen halako indar bat, halako jatortasuna bere diskurtsoan bere ekimenak guztiz erakargarri bihurtzen zituen... Euskal kazetaritza eraberritzeko bidean jarri zuen duela 46 urte eta sei urte eskaseta iraultza isil bat eragin zuen euskal kulturgintzan; isila baina ahalmentsua, askatasuna eta eragin-kortasuna bere gidari izan zituena, arazoak eta trabak eragozpen baino pizgarri bihurtu zituen... 40 urte hauetan zuek, Ttipi-Ttapakoek, haren ibilbidean barrena jardun duzelakoan nago, duintasunez eta, jakina, ttipi-ttapa. Zorionak bortzirietatarrei!

Gu < Ttipi-Ttapa

Euskararen alde egin behar horretan, Bera aldean, euskaltzalez osaturiko *Gu* Taldea ezinbestekoa izan zen Ttipi-Ttapa elkartearen gauzapenean. Joxemanuel Irigoien atzoko eta gaurko lekuko da. Erreferentzia nagusienetakoa. Hona, bere oroitzapenak:

ABIATZEA

“1980ko garai hartan *Gu* taldearen baitan ez zegoen egitura baten arabera lantalde finkorik, elkarterik ere ez. Lagun koadrila zen, eta neu oraindik ez nengoen haien artean. Ziurrenik 1982an sartu nintzen, guztiak bezalaxe, bolondres modura. Garai hartan ez zitzaion baterre garrantziarik ematen egitura juridikoa izateari. Gehiago zen euskararen alde zerbait egitea.

Eskualdean garai hartan halako sukarra zegoen: Euskaltegiak martxan, ikastolak sortu be-

rriak ziren, Xorroxin irratia... Garai hartatik, egiturak baino gehiago, euskararen alde zerbait egiteko borondatea da nabarmentzekoa.

Ez dut oroitzapen garbirik mugimendu honetan sartu nintzen arrazoien inguruan. Ziurrenik euskararen alde zerbait egin nahi nuelako. *Gu* taldeko jendea ezagutu nuen eta tartean parte hartzeko gonbidapena izango zen. Eta, noski, neuk gonbidapena onartu izana. Nire lehen idazlanak ez ziren kronikak, euskarari buruzko gaiak izan ziren.

Kazetari lanetan, Etxalarko kronikak idazten hasi nintzen.

Ttipi-Ttaparen lehendabiziko aldizkarietan agertzen zen esaldian ondo adierazten da garai hartako intentzioa zein zen: *Solas ongi eginagatik, euskeraz leitzen eta eskribitzen erakutsi ez dizutenei, bihotz bihotzez*. Kazetari irizpiderik ere ez zegoen, baizik eta azpimarratzekoa euskara bera zen.



Ttipi-Ttapako lankideek eta berriematek urteroko bilera egiten dute udazken aldera. Argazkia 1994. urtekoa da.



1998, iraila. Ttipi-Ttapa telebistaren lantaldea osatzen zuten teknikari eta kazetariak: Joana Iñiguez, Xabier Erkizia, Mikel Zubietta, Aitor Arozena, Jon Abril, Estitxu Fernandez, Nerea Altzuri, Jon Altzuguren, Felipe Saragueta eta Asier Gogortza.

Olerkiak, bertsoak, kontu zaharrak, komikiak, marrazkiak..., aldizkari baten maneran gorpuzten ziren. Mekanizazio aldetik, modu aski prekarioran”.

GORPUZTEA

“1990. urtera arte, urtean 3-5 aldizkari argitaratzen ziren. Esan bezala *Gu* Taldeak abiarazi zuen mugimendu hura, Ttipi-Ttapa elkarte sortu zen arte.

Egiturarik gabeko bolondres multzo horren ziklo naturala 80ko hamarkadaren bukaeran amaitu zen. Ez zuen gehiagorako ematen. Horretan geratu edo urrats berria eman, zalantza horretan ginela, giltzarri izan zen Arrasateko esperientzia. Guretat oso une egokian iritsi zen. 1989ko azaroan Joxe Aranzabalek hartu gintuen Arrasaten. Orduan planteatzen ziren autoediziorako ordenagailua, publizitatea, kazetariarena ogibide bilakatzeari... Egiako iraultza izan zen hura.

Aldizkari berria taxutzerakoan, Arrasateko

ereduari jarraituz, jendearen gehiengoak interesekoa izaten ahal zuen aldizkaria prestatu genuen, gure ustez. Seguruenik asko eta asko Ttipi-Ttapako artikuluak irakurriz hasiko ziren euskaraz irakurtzen. Hartzaileen arreta pizteko eta estimuan hartzeko beste klabe batzuk kontuan hartu behar zirela argi zegoen. Trantze horrek ez zuen uxatzeko modukoa izan behar, erakarri eta atentzioa deitzeko modukoa baizik. Hor aldaketa handia dago. Linea ideologiko aldetik ahalik eta zabalen jokatzearen mesedek kontuan hartu genituen.

Ahaztu gabe faktore ekonomiko guztiak. Lehen aldiz hiru pertsona liberatzea planteatu zen, publizitatea txertatzea, merkatal zerbitzuak eskaintzea... Urrats horiek guztiak denbora epe txikian eman ziren.

Bi aro nabarmendu behar badira Ttipi-Ttaparen historian, horiek dira: Lehena, bolondres mugimenduan oinarritua eta, bigarrena, profesionalizazioan eraikia”.

BIDERKATZEA

“1995-1996an aldizkariak zuen arrakastaren eraginez gauza berriak probatzeko motibazioa eta barne indarra bazegoen. Euforia puntu hori bizi zen lantaldean: badago gauza berriak egite-rik, bada indarrrik, bada honetan segitzetik.

Internet gunearekin lardaskatzen hasi ginen, orduan. Eta telebistarekin beranduxeago.

Hasieran igerilekura salto egitea izan zen, zenbaterainoko sakonera duen jakin gabe. Sakoneraren neurria hartzen hasi ginen, eta ikusten ere bai neurria jarri behar zitzaieela gauzei.

Nafarroako Gobernuaren laguntzak behe-runtz joan direla ikusita, gainera, autofinantza-keta zen jarraitu beharreko bidea. Gainerakoan buztinezko hankek eusten zuten hori guztia. Harpidetza sistema kanpaina aktiboa egin genuen, urtebetez pertsona bat aritu zen aldizkariaren hartzaile denei banaka-banaka deika erantzuna jaso arte. Horrek ekarri zuen urte oso bateko lana, pertsona baten egun osoko dedikazioan egindako lana. Hortik aurrera, irakurleekin hartu-emanera erabat aldatu zen. Kontuak diferente bihurtzen dira, diru ekarpena egiten zuten harpidedunen exigentzia horri zuzen erantzuteko beharra sortu zelako. Aldiren batean aldizkaria etxean jaso ez duenak berehala egiten du erreklamazioa, pagatu izanak horretarako eskubidea ematen baitu. Hartu-emanera diferentea da, urrats kualitatibo nabarmena ematen da.

Telebista martxan jartzea Ttipi-Tapak sekula egin duen apusturik handiena izan da. Ez bakarrik duen karga ekonomiko guztia erabat, baizik eta dedikazio absolutoa ere eskatzen duela. Telebistak zurrupatzen du zurrupatzen ahal den guztia. Egiatzko zulo beltza bihurtzen da. Esfortzu guztiak behar dira eta gehiago, diru premia guztiak irensten ditu eta oraindik gehiago eskatzen du”.



2009aren hasieran Bortzirietako Euskara Mankomunitateak elkarretaratzea deitu zuen.


IRAUNARAZTEA

“Telebistarekin nabarmen geratu da diru-sar-rrera aldetik zein konplikatu den autofinantza-keta. Telebista asmakizun polita da, baina irau-narazteko makina lan hartu behar da. Ekono-mikoki, urte gutxitan estali du bere burua. Di-rulaguntzek ez dute gora egin, kasu batzuetan gainera behera, kasik desagertzeraino. Publi-zitateak ere ez du gora egin eta gastu finkoak etengabe gorantz doaz. Horrek larritasuna sor-tu zuen gure artean, azken urteetan oso garbi gainera. Zuloa handitzen doan heinean *standby* ematea erabaki genuen. Halabeharrez, langile-en kontratuak eten egin behar izan genituen. Hortik dator gaur egungo egoera. Telebista martxan dago baino momentu honetan progra-maziorik ez du, albisteak teletestu moduan es-kaintzen ditugu, eta audioan, Xorroxin irratia entzuten da. Hausnarketa prozesu sakonean murgilduta gaude udal instituzioekin eta baita eskualdean dagoen Xaloa beste telebistarekin. Zein helbururekin? Baztan-Bidasoa osorako ahal dela telebista bat egitea, eta telebista berri horretan udal instituzioen parte hartze aktibo-agoa lortzea. Etorkizuneko telebistak zer nola-ko egitura izango duen aztertzen ari gara orain”.



Mahai-ingurua

Solasaldia



Pello Apezetxea
Goizueta (Nafarroa)
Ttipi-Ttapa fundazioko lehendakaria.

Joxemanuel Irigoien
Etxalar (Nafarroa)
Ttipi-Ttapako kudeatzailea.

Jon Abril
Bera (Nafarroa)
Berako udaletxean zinegotzi.
Ttipi-Ttapako kolaboratzaile ohia.

Joxe Aranzabal
Arrasate (Gipuzkoa)
Arrasate Press-eko lehen zuzendaria.
Irakaslea HUHEZIn, Mondragon Unibertsitatean.

Moderatzailea:
Jon Ander Ubeda.
Lugaritz Kultur Etxea
Donostia, Gipuzkoa.
2009-06-09.


Ttipi-Ttapako kideok, Arrasate Press eredu bertatik bertara ikusi eta elkar ezagutu zuten une hura erabakiorra izan zen.

Joxemanuel Irigoien. Guretzat momentu aski egokia izan zen. Irautera begirako egituraketa bat genuen orduan. Bederatzi urte ziren Ttipi-Ttapa sortu zenetik. Gurea ez zen planteamendu profesionala, unean uneko eta lagunarteko dinamikan oinarrituta zegoen. Egitasmoaren bukaera ikusten ari ginen eta prentsa bidez, ziurrenik, Arrasaten sortu zen ereduaren berri izan genuen.

Joxe Aranzabal. Guk 1988an atera genuen aldizkaria, Duran-

goko Azokarako. Sorrera hartan, prentsa idatziko kazetarien artean aldizkariaren berri ematen aritu ginen. Produktua berria zen, euskarazkoen artean. Egitasmoak zabalkunde handia izan zuen, UNEDetik ere deitu ziguten. Orduan euskarazko mintegiarekin ari ziren eta gure esperientzia azaltzeko eskatu ziguten. Dezenteko oihartzuna izan zuen. Zuek etorri zineten, beste batzuk ere bai. Gogoratzen dudanagatik, krisian zeundetela esan zeniguten. Ordura arte, literatura moduko aldizkaria lantzen ari zinetela eta, bestalde, lantaldean joan-etorriak gertatzen ari zirela. Harrigarria

Mugarriak



1981
Ttipi-Ttapa hiruhilabetez gisa argitaratzen hasi zen.

1984
Ttipi-Ttapa kultur elkarte sortu zen.

1990.1.3
Ttipi-Ttapa hamaboskari bilakatzen da, 29. zenbakia argitaratzearekin batera.

1996.7.5
Internet edizioa argitaratzen hasi zen.

1996
Ttipi txartela abian jarri zen.

1997
Ttipi-Ttapa fundazioa sortu zen.

1998.6.15
Ttipi-Ttapa telebista hasi zen emititzen.

2006
Ttipi.net gunean egunero albisteak eta telebistako albistegiaren laburpena eskaintzen hasi ziren.

2009.1.31
Telebistaren emisioa eten egin zuten.

baldin bazen ere, orduan inoiz baino diru gehiago omen zeneukaten. Zuen mezua hauxe zen: “-Jo, inoiz baino diru gehiago daukagu baina ez dakigu nondik nora jo, ze krisian gaude. Ez dakigu betiko moduarekin jarraitu edo aldatu. Ikusi dugu zuek beste zerbait egiten ari zaretela eta oihartzun handia izaten ari dela. Zertan ari zaretan jakin nahiko genuke” . Goiz osoa eman genuen hizketan, bazkaldu ere elkarrekin bazkaldu genuen eta arratsaldean hizketan jarraitu genuen. Handik gutxira jakin genuen Beran bilera egin eta erabaki zenutela aurreko ereduarekin amaitu eta eskualdeko aldizkaria sortzea. Hori, berez, gutxitan gertatzen da. Produktu bat hil eta horren gainean beste zerbait egitea.

Joxemanuel Irigoien. Gure lantaldea krisian zegoen eta jarrai-

pena emateko, atzetik ez zeterren inor gehiago. Garantiarik ez zegoen. Guretzat klabea izan zen Arrasatera egindako bisita hura. Komunikabideen alorrean bideak urratu ziren Arrasaten.

Formularen bila abiatu zineten, orduan, Arrasate aldera?

Joxemanuel Irigoien. Jakin-mina sortzeko modukoa zen prentsa bidez ezagutu genuena.

Joxe Aranzabal. Guk, nolabait, formula saltzen genuen. Alde batetik, egitura profesionala. Gure artean genion ezin genuela gehiengoaren antzera ibili. Aldizkaria ateratzea bermatzeko azpiegitura iraunkorra sortu behar genuen. Bestetik, garai hartan lehen euskal kazetari lizentziatuak ateratzen ari zirela aprobe txatu genuen. Horretarako ad-



Lanaren aitortza Euskal Herrian

Euskal kazetaritzaren alorrean ematen diren sari garrantzitsuenak, zalantzarik gabe, Argia Sariak eta Rikardo Arregi Kazetaritza Sariak dira. Biak ala biak eskuratu ditu Ttipi-Ttapa hedabideak.

Argia Sariak

1995

Euskal komunikabideetan egiten diren lanik onenak eta profesional bikainenak saritzeko sortu ziren Argia sariak. VII. edizioan, prentsa idatziaren atalean, Ttipi-Ttapa eskuratu zuen saria. Hauxe epaimahaiak saria ematerakoan adierazi zuena: "Batzuek nazio mailako eremua hartzen dute komunikazioa egiteko gunetzat, eta eskualde maila zehatzagoan lan egitea erabaki dute beste batzuek. Erakundeen bultzadarekin batera sortu dira batzuek, eta beste batzuek fruituak ematen hasitakoan jo dute laguntza eske. Aurretik landutako soroetan hasi da zenbait, eta Argia sari hau emango diogun taldeak, aldiz, euskarazko irakurleak ia deusetik sortzeko apostua egin du. Herri prentsako erreferentzia nagusietako bat den eta Nafarroako eskualde oso bati bizi berri bat eman diolako, gure Argia saria Ttipi-Ttapa aldizkariarentzat da".



ministratioak lanpostuak sortzeko ematen zituen dirulaguntza batzuk baliatu genituen. Aldundiak diru kopurua jartzen zuen eta Udalak ere bai.

Joxemanuel Irigoien. Hori, jakina, Gipuzkoan.

Joxe Aranzabal. Gero erabaki genuen publizitatea txertatzea. Ordenagailuak erabiltzea ere erabaki genuen, idazmakina alde batera utzita. Macintosh txikiak erosi genituen, edizioaren kontrol handiagoa izateko. Orduan, guk mar txan jarri genuen formula hori ezberdina zen. Beste bi aldagai ere aipatu behar dira: Doako aldizkaria egitea erabaki genuen, eta maiztasun handiarekin.

Formula hori zuenera egokitu zenuen, beraz...

Joxemanuel Irigoien. Formula tokian tokira egokitu beharra zegoen, halaberrez. Arrasate gu-

ne urbanoa da, arratsalde batean banaketa bidez herri osoan ate gehienetara irits zaitzke. Gurea oso diferentea zen, herri txikiak dira eta dispersioa ikaragarria da.

Berrogei herritako eremu geografikora zabaltzea zen gure asmoa. Horregatik, gurean, astebeteko produkzio maiztasunean, ez da bermatzen Arrasateko formula berdinarekin etxe guztietara iristea.

Aldaketa handia Ttipi-Ttapa baitan. Irakurleek zer nola hartu zuten aldaketa hori?

Jon Abril. Hamabortz urte nituen eta oroitzen dut, bai. Institutuan Ttipi-Ttapa aldatu egin-go zela jakin nuen. Nik produktu berri bezala bizi izan nuen, eskualdeko informazioko produktu modura. Bertatik sortua eta bertakoentzat egina. Ordura arteko

eredua erdibidean gelditua zen. Ez zen kultur aldizkari propioa, nahas-mahasa zen. Produktu periodistikotik urrun zegoen. 80ko hamarkadaren hasieran zentzua izan zuen bezala, 80ko hamarkadaren akaberan ez zuen. Eta nik uste, zentzu handi batean, hortik etorri zela irakurleen galera. Aldizkari informatiboaren sorrera haize freskoa izan zen, euskaraz eta bertako gertaeren berri ematen zuena. Beste seriotasun batekin ikusten zen, herriz herriko berriemaileekin.

Pello Apezetxea. Jendeari entzundakoaren arabera, inoiz euskaraz irakurri zuenak Ttipi-Ttapa pari esker egin zuen. Baziren "–Nik ez dut sekula euskaraz irakurri eta orain irakurtzen dut", ziotenak. Funtzio ederra bete zuen. Gaur egun, Ttipi-Ttapa tokikotasun hori kenduz gero, akabo. Arrakasta hor dago.

Jon Abril. Tokiko prentsa fenomenoaren gakoa hori da. Bertako euskalkian izatea, bertako albisteak izatea..., lotura handia sortzen da.

Joxe Aranzabal. Prentsa lokalak, gainera, aldatu egin zuen alfabetatuaren pertzepzioa. Orduan gure gurasoak ez zeuden euskaraz alfabetatuak, ez zekiten euskaraz irakurtzen. Ttipi-Ttapa, Arrasate Press edo Berrigara etorritakoan, jende multzo hori euskaraz irakurtzen hasi zen. Bazekiten irakurtzen, baina ez zeuden alfabetatuta. Beraz, ez da euskaraz jakin edo ez jakin. Aldizkariekin batera irakurtzeko joera hori modu naturalean iritsi zen, lokaltasun horrek eraginda. Gure gurasoak, beraz, ez zeuden alfabetatuta, baina euskaraz irakurtzen hasi ziren.

Jon Abril. Eta gaur egun, –Bera bezalako herri batean, adibidez–

Lanaren aitortza Euskal Herrian

Rikardo Arregi Kazetaritza Saria

1997

Euskararen erabilera-rako mundu berriak eskuratu zituztelako *ex aequo* saria jaso zuten Entzun! musika aldizkari sortu berriak eta Ttipi-Ttapa. Ttipi-Ttapa alde egiteko arrazoiak, hauexek: "Ttipi-Ttapa izan da euskarazko prentsaren munduan, ez argitalpenaren zati batekin baizik eta aldizkari osoarekin, aldizkari informazio guztiarekin alegia, edizio elektronikoa Internet sarean eskaini duen lehena. 1996ko uztailaren 5ean hasi zen aldizkari hori Interneteko edizioa argitaratzen. Modu horretara, euskal prentsa amaraun-mundu berriari sartzeko bidea ireki du Ttipi-Ttapa; nolabait esateko, aldizkari nafarri zor diogu euskal kazetaritza amaraun-an, Interneten sartu izana. Eta ahaleginak neurtzea egokia ez zik bidezkoa ere badenez, azpimarratzekoa da toki aldizkari bat izatea urrats hori ematen lehena gure artean".

1990ean Iruñeko Zaldiko Maldiko elkarteak Lamien Urrezko Orrazia izeneko saria eman zion. 1991n, berriz, Arkupeak elkarteak.

“

Gurean hasieratik publizitatea txertatzen hasi ginen. Orduan publizitatea txertatzea gaizki ikusita zegoen”

Joxe Aranzabal



“

Euskaldun ez direnak edo euskara aunitz maila baxua dutenak ere irakurle dira”

Jon Abril

baita euskaldun ez direnak edo euskara hagitzez maila baxuagoa dutenak ere irakurle dira. Etxe anitzetan hartzen da aldizkaria eta gutienez titularrak irakurri, hariari eusten saiatzen dira. Aldizkariak ahalegin hori egitea ekarri du. Neronek familian bertan sumatzen dut. Aldizkaria ailegatzan denean, patxadaz jarri, irakurri eta euskaraz ulertzeko esfortzua egiten da. Bertze komunikabideek lortzen ez dutena euskarazko tokiko prentsarekin gertatzen da.

Joxemanuel Irigoien. Doakotasunak ere eragin handia izan zuen.

Jon Abril. Dударik ez dago, bertzela zabalkunde hori ulertzea ezinezkoa litzateke. Ordura arte Ttipi-Ttapa ordaintzekoa zen, ez zen inorentzat kopuru izugarria baina muga bat zen. Kioskora erostera propio joan behar zen, dirua ordainduz.

Pello Apeztexea. Doakotasunarena aunitzetan eztabaidatua izan

zen. Guk garbi genuen ez genuela kobratu behar urte batzuk pasa arte. Jendeak berea bezala egiten zuenean, ezin utzi zuenean..., kobratzen orduan hasi beharko genukeela esaten genuen.

Joxe Aranzabal. Munduan oso ohikoa da. Brasilen doako prentsa ikaragarri zabaltzen da, hemen ez bezala. Hori segmentu bat da. Gure kasuan asmatu genuen euskararentzat segmentu horretan behintzat ondo txertatzen.

Jon Abril. Eta horretan gainera aitzin hartu zenioten gaztelerezko ereduari. Zuek ikusmen hori eduki zenuten.

Joxemanuel Irigoien. Ikaragarria, gainera.

Joxe Aranzabal. Guretzat laguntza handikoa izan zen Nafarroako Erriberako eredu, La Rivera Navarra izenekoa. Han topatu genuen Escribano jauna Pueblo, Arriba eta medio horietan idatzitakoa zen. Aurreiritzi gutxiko pertsona zen. Gure aukera ez zen

berea izango, baina hark esan zigun, “-Zenbat bizilagun? 24.000. Horietatik zenbat euskaldun? 10.000. Hamar milarekin hori aurrera atera dezakezue. Egin dezakezue. Doakotasuna eta etxera eramatea kontuan izanik, egin dezakezue” . Orduan, horrelako profesional baten iritzia hori izanda -eta berak horrekin negozioa egiten zuela ikusita- guretzat oso baliagarria izan zen. Hura ikusita erabaki genuen aldizkaria doakoa egingo genuela, publizitatea erabiltzea eta postontzietan banatzea, harpidedunen izenean.


Euskara elkarteekin alderatuta, zeharo ezberdina.

Joxe Aranzabal. Horretan oso ezberdina zen esperientzia. Gizon hura oso profesionala zen, bere herrian bizi zen eta dirua egiten ari zen. Aldizkariaren %75 publizitatea zen eta %25 informazioa. Oso gizon intelijentea zen, kontrol handia erakusten zuena. Gure kasua euskara bultzatzeko

eta sustatzeko asmoa zen. Hasieran Arrasaten bi lagun ziren, gero AED elkartera joan eta lau lagun elkartuta taldea osatu zen. Finantziarioa ere mistoa zen. Batetik Udala eta Aldundia inplikatzen ziren eta bestetik elkarrekin. Modelo hori abiatu genuen eta hori zabaldu da gehien. Gurean hasieratik publizitatea txertatzen hasi ginen. Garai hartan publizitatea txertatzea gaizki ikusita zegoen. Burgesiaren jokatibidea zen! Tuterakoak lortutakoa beste ez, baina zati esanguratsua lortu behar genuela argi genuen.

Jakin aldizkarian garai hartan idatzi zenuen automobil marka ezberdinen publizitatea tokiko hedabideetan txertatzeak prestigioa ematen ziola aldizkariari.

Joxe Aranzabal. Hori bere garaiaren esatea gogor samarra zen. Zenbaitek gaizki ulertzen zuten, “-Joe, publizitatea atera behar duzue!” , galdetzen ziguten. Eta guk erantzun, “-Hik ale hau jasotzeaga-



“

Aldizkariaren hedapenean doakotasunak eragin handia izan zuen hasierako garai haietan”

Joxemanuel Irigoien



Idazmakinatik Internetera



Ttipi-Ttapa aldizkariaren lehen zenbakia 1981eko neguan argitaratu zen. Offset-ez erreproduzitatea, berrogei orrialdeko argitalpena izan zen: zuri-bel-tzean eta idazmakina idatziriko testuekin diagramatua. Osagarri grafiko moduan, marrazkiak eta argazkiren bat erabili zuten. Laurehun aleko tirada izan zuten, nagusiki Bortzrietan banatu zen lehen zenbaki hark.

Aldizkaria ez zen kultur elkarte edo bestelako erakundeen babespean sortu. Aitzitik, hamar bat lagunez osatutako lagun taldea—Gutaldea— izan zen ideia-aren bultzatzailea. Gero, 1984 urtean sortu zen Ttipi-Ttapa Kultur Elkarte.

Hasierako urte haie-tan aldizkariak ez zuen egoitzarik izan denbora dezentean. Bultzatzaileek euren denbora librean egiten zuten aldizkaria, jarduera hori egiteagatik inork zentimorik jasotzen ez zuela.

Beste hainbat herrietako esperientzia ezberdinen berri izate-ak—Arrasate Press-en kasua bereziki—, aldaketa eta eraberritze-



tik zenbat ordaindu duk? Eta nondik uste duk etortzen dela dirua, ba?"

Erantzun horrekin, tira, bakea egiten zen. Euskalgintzan kosta egiten zen hori.

Jon Abril. Ttipi-Ttapan ere antzeko zerbait gertatu zen.

Joxemanuel Irigoien. Bai, bai. Eta alde horretatik aipatu dugun Matias Escribanori zor zaio bisio komertzial hori izatea. Euskarazko hedabideetan, gainera, iraultza izan zen.

Joxe Aranzabal. Begira, ordura arte, garaje edo tailer batera diru eskean bezala joaten ginen. Limosna modukoa izaten zen.

Baina handik aurrera negozioia zen. Merkatalguneetara horrela joaten ginen, “—Begira 7.000 ale argitaratzen ditugu, horrekin badakizu Arrasate osora iristen dela. Beraz,

zein merke ateratzen zaizun gure medioan publizitatea egitea. Diario Vas-cok ere ezin dizu horrelakorik eskai-n”. Zuk irabazi, guk irabazi. Oso garbi zegoen. Arrasateko Renault-eko nagusia gogoan dut. Euskaraz tutik ere ez, baina hark gure eskaintza oso ondo ulertu zuen.

Aldizkaria sortu eta garapen bide horretan Ttipi-Ttapa aldizkariak hogeitau urte bete ditu.

Joxe Aranzabal. Eta hogeitau urtean lan egiten da. Arrastoa uzten da.

Jon Abril. Egoera arrunt aldatu da. Ttipi-Ttapa dagoeneko zerden ez diozu inori azaldu behar eskualdean, egoera horrek ate guztiak zabalik uzten dituelarik. Udal batetik bertzera gauzak aldatzen dira, aurrekontuak eztabaidatzen direnean orain hogeitau urteko eztabaidak ez du egungo-arekin zerikusirik. Inork ez du zalantzan paratzen produktu hori beharrezkoa denik. Finantziazioan ikuspegi ezberdinak egon daitezke, baina produktuak berak dituen onurak, eragin soziala eta hizkuntzaren aldetik betetzen duen funtzioa..., dagoeneko ez du inork zalantzan paratzen. Hori guztia hogeitau urteko lanaren emaitza da.

Joxe Aranzabal. Tradizio bat sortu duzue. Tradizio hori ez dagoenean askoz ere zailagoa da herrian gauzak egitea. Eta tradi-

zioarekin batera sinesgarritasuna irabazten da.

Internet alorrean ere aitzindari izan zineten.

Joxemanuel Irigoien. Une hartan hamaboskaria zabalkunde prozesuan ari zen, harpidedunak irabazten eta komertzialki goruntz eginez. Aldizkaria tresna interesgarria zen eskualdean. Egoera horrek euforia giroa ekarri zuen, ekimen berrien aurrean begiak zabalik edukitzeko adina bai. Internet eta telebistari dago-kionez horrela izan zen.

Nafarroako Internet elkartearen-tzat La Red aldizkaria diseinatu, maketatu eta inprimatzen genduen. Harreman naturala sortu zen. Haien eskutik sartu ginen Internet sarean.

Joxe Aranzabal. Web 1.0 ereduari jarraituz abiatu ziren, gu 2.0 bertsiorekin murgildu ginen Internetera. Hori egin zenutenean, nik neronek pentsatu nuen zuen eremuan badaudela Ipar Amerikara joandakoak. Begira, Internet bidez, lortu zenuten hango jendearekin harremana sortzea.

Jon Abril. Han izandako harrera nabarmena izan zen. Erabiltzaileak nagusiki hangoa zen. Hamahiru urte gibelera eginez, hemen oraindik Internet ia ezezaguna zen. Ni lehenbiziko aldiz, ikasle nintzela, 1997an sartu nintzen Interneten. Garai hartan gure eskualdean nor sartzen zen Interneten?

Bertzalde, Euskal Herri osotik Amerikara joandako migrazio kopuru handiena eskualdekoa zen.

Joxe Aranzabal. Migrazio euskalduna, gainera. Lotura hori egitea lortu zenuten, modu naturalean eta oso modu merkean.

Joxemanuel Irigoien. Oso gogoa-n ditut garai hartan Argentinatik eta beste tokietatik jaso genituen mezuak. Une hartan bertako eta hangoen arteko pasabide bilakatu zen. kontaktu bidea, alegia.

Joxe Aranzabal. Eta modernitatearen zentzua. Zuen bailaran, Ttipi-Ttapa euskararen ikurra Interneten sartzen eta puntaren puntako teknologia erabiltzen. Hori oso inportantea da sinesgarritasunaren tradizio horretan.



Idazmakinatik Internetera

prozesua azkartu egin zuen nabarmen. 1989ko udazkenean, aldizkariaren egitura osoa goitik behera aztertu eta gero, hamaboskaria jarri baitzen martxan eta, horrekin batera, baita kazetari egitura berria ere: Izan ere, lehen aldiz hiru kazetari lotu zitzaizkion profesionalki hamaboskaria aurrera ateratzeari. Hiru langile horiez gain, hemezortzi berriemaitz eta hamar bat kolaboratzailez osaturiko taldea osatu zen, hamaboskaria bideratzeko.

1990 urteko lehen hamaboskariak 1500 aleko tirada izan zuen eta urtebete geroago, 1991ko otsailean, 4000 harpidedun zituen dagoeneko Ttipi-Ttapa. Esparru geografikoari zegokionez ere, sei eskualdetara zabaldu zen: Baztan, Bortziriak, Bertizarana, Leitzaldea, Malerreka eta Saraldea. Guztira hogeita bost udalerritara.

1996ko oporraldia-ren ondoren Ttipi-Ttapa 32 orrialdeko hamaboskaria izatetik 36 orrialdekoa izatera pasatu zen, tirada ere 6300 alera igoz.

Papereko aldizkari-eginekiko aldaketa horiekin batera, aldizkaria mundu osora zabaltzeko helburuarekin, Ttipi-Ttapan edizio elektronikoa jarri zen abian.

Irudi esanguratsuak



Joxemanuel Irigoienek eta Ttipi-Ttapa berrikuntzaren atalean Rikardo Arregi kazetaritza saria jaso zuten 1997an, Entzun! musika aldizkariarekin batera. Argazkian, Irigoien edizio hartako saritu eta epaimahaikideen artean. Ohorezko aipamena jaso zuen Martin Ugalde tartean zen.



Ttipi-Ttapa telebistako erredaktorea Abel Barriola pilotaria elkarriketatzen ageri da, Leitzako plazan.



Iruñeako Zaldiko Maldiko elkarrekin *Laminen urrezko orraziarekin* Ttipi-Ttapa hamaboskariaren alde emanda-ko pausoa saritu zuen.



Joxe, zuek Arrasaten, telebista Internet baino lehen abiarazi zenuen.

Joxe Aranzabal. Guk lehenik aldizkaria jarri genuen martxan. Irratiarekin urtebetera saiatu ginen Eusko Jaurlaritzaren deialdi batean aurkeztu ginenean. Guretzat irrati erraza zen. Aldizkariak arrakasta izan zuen eta irratiak erraza zirudiren. Ez genuen lizentziarik lortu. Ikusita legez ezin genuela irrati sortu, telebistarekin animatu ginen legediari dagokionez zegoen hutsunea baliatuz. Telebistaren bidea zailagoa zen. Medioa ez genuen ezagutzen, garestiagoa zen. Soinua, argitasuna, irudia, edizioa, kazetaritza lana..., telebistan gauza asko hartu behar da kontuan. Ohituta gaude telebista bidez produktua eginda jasotzera. Erraza dirudi, baina atzean sekulako lana dago. Kosta egin zitzaigun, hasieran problema tekni-

koak izan genituen. Orain, aldiz, oso ondo doa. Hogeitik gora urte, jarraipena izanez gero, ez dira alferrik pasatzen.

Telebista sortzeko bigarren bidea egin al zenuen Arrasate aldera?

Joxemanuel Irigoien. Seguru baietz. Jon Aldanondo han zegoela esango nuke. Arrasateko ospital zaharrean zegoen egoitza, eta itzulinguru batzuk egin genituen. Garai beretsuan sortu zen Oarsoaldea telebista ere. Hurbilago genuen. Bi foko horiek izan ziren guretzat eredu. Ez pentsa oso garbi genuenik non sartzen ari ginen!
Joxe Aranzabal. Euforia! Lehenxeago aipatu duzue...
Joxemanuel Irigoien. Euforia edo halako mozkorraldia tarteko zegoen, bai. Aurretik etxeko lan dezente egin zen, baina egitura oso bat aldatu zen. Beste hedabi-



deekin alderatuta berebiziko esfortzua eskatzen du. Esfortzu pertsonala, profesionala, teknikoa, ekonomikoa...

Pello Apezetxea. Aldizkariaren erabat bestelakoa da. Etxetik bertatik kronikak idatz daitezke, ohiko telebistarekin gertatzen ez den bezala.

Joxemanuel Irigoien. Teknikoki buruko min handiak izan genituen. Antenak jartzeak bakarrik buruko min dezentea eman zingun.

Eskualdeko telebista sortzea izan al zen zuen helburua?

Joxemanuel Irigoien. Eskualdeko telebista sortzea izan zen helburua hasieratik, baina gero ez zen horrela gorpuztu. Urte luze-ko prozesua izan zen, Xorroxin irratiarekin denbora luzea eman genuen egitasmoa lantzen. Erronka polita izan ahal zen, ho-

ri egiteko barne indarra ikusten zen. Azkenean, bilera prozesu luzearen ondotik, irratiak deliberatu zuen ez sartzea horrelako apostuan. Ez, irrati bezala. Irrati-ko kudeatzaile batzuk, aldiz, sartu egin ziren egitasmoan. Hasieran telebista bakarra egiteko asmoa zegoen baina, azkenean, Baztanen Xaloa telebista abiatu zen eta Bortzirietan bestea. Garai berean, Xaloa hilabete batzuk lehenago. Gauzak ez dira beti ongi ateratzen, eta telebistaren kasuan ez zen sintoniarik lortu. Zergatik? Proiektuaren zehaztapenean sartzean ez zen ideia bateraturik gorpuztu. Horrek proiektu diferenteak sortzea ekarri zuen.
Jon Abril. Gaur egun, hiru komunikabide daude hiru egitura eta kudeaketa ezberdinekin: Xorroxin irrati, Xaloa telebista eta Ttipi-Ttapa hedabide taldea.

Ttipi txartela



Oreteretan ezagutu zuten esperientzia bereganatu zuten 1996an Ttipi-Ttapa-koek, Nafarroako hedapen eremuan arrakasta handiarekin txertatu zutena gainera. Ideia sorburu izan zen tokian, aldiz, bertan behera geratu zen ekimena. Egund, Ttipi txartelarekin harpidedunek 40 euroko ordainketa eginda, aldizkaria hamabostero etxean jasotzen dute. Horrez gain, deskontuak dituzte hainbat denda eta zerbitzutan. Zozketa ezberdinetan parte har dezakete eta, hori guztia gutxi balitz, Errenta Aitorpenaren kuotan %25eko desgabazioa egiten zaie. Autofinantzatzea bermatzeko apostu sendoa da, zalantzarik gabe. Era berean, marketing ikuspegitik, harpideduna fidelizatze-ko egitasmo erakargarria da. Horri guztiari hirugarren faktore onuragarria gehitu behar zaio: Ttipi txartelaren erabilera tokiko merkataritza suspertzeko guztiz lagungarria dela. Ttipi-Ttapa laguntzeak badu saria.

Ilbeltzean ilundu zen pantaila



Ilbeltza zen, urtarrila, telebistari *standby* emateko jarritako data. 2009ko urtarrilaren 22ko aldizkarian Joxemanuel Irigoien enizenpean argitaratu zen artikuluan iragarri zen, "Ttipi-Ttapa telebistaren jarduna ilbeltzaren 31n geldituko da" titulupean.

Gutxitan egokitu zitzaion Irigoieni horrelako trantzean jarri eta iragarpen aski tristea egitea: "Buelta dezenteman ondotik hartutako erabakia izan da, samina eta nekez hartzen den horietakoa, jakinda, ongi jakin ere, zenbat kostatzen diren gauzak aitzinera eramatea zerotik hasita. Alabaina, talde osoa arriskuan jarri baino lehen zati bati *pause* ematea hobe dela pentsatuz hartutako erabakia izan da".

Hilabete lehenago telebistari eustea posible izanen zela argitaratu zen hamaboskarian. Ordea, egun gutxira usteak ustel zirela ikusi zuten, errealitatek urrun zegoena eta erabat kaltegarria egitasmo osoa kontuan hartuta.



Ttipi-Ttapak programazioa eten egin du urte hasieran, halabeharrez. Iraun bitarteko zein balorazio egiten duzue?

Pello Apezetxea. Zaila.

Joxemanuel Irigoien. Zaila, hamar urteko bizitza horretan denetik tokatu zaigu. Jon Abriekin Auzitegi Nazionaletik igarotzeraino, eta gure egoitza Goardia Zibilak hartuko zuela pentsatzeraino! Ikusleen harrerari dago-kionez, hartzaileen aldetik, jendea esker onekoa izan da. Izugarri positiboa izan da esperientzia.

Jon Abril. Erantzuna ikaragarria izan da.

Pello Apezetxea. Horren seinale da, hasi eta urtea bete berritan, ekonomikoki aunitz gaizki ibili ginenekoa. Diru gehiago ez bazen

itxi egin behar zen. Bortzirietan diru-bilketa egin genuen. Herritarren laguntzari esker behar genuen sei milioiak lortu genituen.

Joxemanuel Irigoien. Europar Batasuneko laguntza bat ziurtzat eman genuen eta ezustean ez zen iritsi. Horrek kili-kolo utzi zuen telebistaren etorkizuna, eta diru-bilketa egitea beste aukerarik ez genuen izan.

Oro har, ekonomikoki iraunaraztea izan da beti telebistaren egiazko buruko mina. Beti-beti zailtasun ekonomiko handiekin ibili gara kontuak kitatzeko.

Egindako lanaren aldetik nik uste jendeak estimu handian hartu duela.

Eta, ondoren, telebistaren emisioaren etetea. Banan bana erantzun ezazue, zer sentitu zenuten barrenean?

Joxemanuel Irigoien. Barnetik izugarri gogorra izan da. Hamar mila esfortzu egindakoaren ondotik gogorra egiten delako. Esfortzu horiek larrutik ordaindu eta erabakiak dramatiko bilakatzaren dira, hiru lan hitzarmen eten egin behar izan ditugulako. Hori barne dinamikarako oso gogorra izan da, baina erabakia ezin zen gehiago luzatu: etengabe zulo ekonomikoa handitzen ari zelako. "*-Segitzeak ez du zentzurik*", horixe hausnartu genuen. Ez baitzen bideragarria. Etsipena gailendu egin zen, herrenka-herren-

ka aurrera egin genuen, baina azkenean egitasmo osoa desorekatzeko arriskua hor zegoen.

Hasieran aipatu dugun euforiaren kontrakoa sortu zen orduan; 2005az geroztik bereziki, tokiko telebista digitalaren hedapena eskualdeka antolatzen hasi zenetik. Nafarroako administrazioak barrutiak zehaztu zituen. Eta Nafarroako ipar-mendebalde osoa, euskal eremu oso-oso telebistarik gabe geratu zen. Hain zuzen, eremu horretan bi telebista daude uhin irekian emititzen. Euskarazko bakarrak horiek dira, gainera. Ahalegin handiak egin ziren. Egoera berbideratzeko buelta asko eman genuen Nafarroako parlamentuan, Espainiako parlamentuan Uxue Barkosekin... Politika mailako ahalegin guztiek huts egin zuten. Horrek aski ataka zaila utzi zuen. Legez onartutako telebistaren tren hori galdu dugu. Ikustear dago itzalketa analogikoarekin zer gertatuko den.

Jon Abril. Niretzat kolpe izugarria izan zen. Sorreran kolaboratzaile izan nintzen. Ez naiz bertako langile izan, baina inplikazio maila bat eduki dut. Kazetari munduan ikasketak bukatzen ari nintzen garaian harrapatu ninduen. Garai polita. Telebista, medio bezala, Ttipi-Ttapa bakarrik ezagutu dut. Eskola ezin hobea izan zen niretzat. Lantaldean zegoen jendearekin harreman pertsonal handia



nuen. Alde horretatik bederen lotura handia izan dut.

Gero, kultur teknikari ibili nintzen garaian eta orain ikuspegi politikotik tresna hagitz eraginkorra izan dela erraten ahal dut. Esfortzu horren ondotik, eskualdeari begira, gibelera pausoa izan da emisioa etetea. Euskararen normalizazioan hagitz garrantzitsua zen, ikus-entzunezkoaren kasuan gainera irudiak indar handiagoa du. Telebistak indarra badu informazioa helarazteko. Hutsune hori sumatzen da. Prentsa oharrak bidaliko ditugu, baina prentsa idatzian eraginkortasuna apalagoa da. Irudiekin bat baldin badator, indar handiagoa hartzen du. Bozgorailu hori galdu da. Erreferentzialtasun hori ho-

Telebistaren aldeko olatua



Nafarroako mendialdean euskarazko telebistaren aldeko olatua piztu zen, Ttipi-Ttapak emisioa etengo zuela zabaldu eta berehala. Inguruko alkateak, mankomunitateetako ordezkariak, herri eragileak, langile eta kolaboratzaile ohiak, herritarrak... erantzuna oso zabala izan zen. 2009ko martxoaren 14an Bortzirietako Euskara Mankomunitateak eta berau osatzen duten udaletako euskara batzordeak deituta berrehun lagunek osatutako kontzentrazioa egin zen Etxalarren, *Euskarari erasorik ez!*, *euskarazko komunikabideen defentsan*, *Ttipi-Ttapa Telebistaren alde* lemapean. Kontzentrazio hartan Kulturkari fundazioko lehendakari Pello Apezetxeak hitza hartu zuen, besteak beste, Nafarroako Gobernuak dirulaguntzak erabat murrizteko hartutako estrategia kritikatzeko. "Erabaki hori helburu argi batekin egin dute, euskara eta euskalgintza itotzea, alegia, jakina baitzen tamainako murrizketa batek arrisku bizian utziko zituela hainbat tokiko hedabide". Ttipi-Ttapa kasu.

Kolpez kolpe



■ Kolpe latza jaso zuen 2008ko hondarrean Ttipi-Ttapako lantaldeak. Foru administrazioak 2009rako erabakitako dirulaguntza ebazpenean, hutsaren hurrena aurreikusten zuen Ttipi-Ttapa fundazioarentzat.

■ Argi eta garbi adierazi zuten albistea hamaboskarian, "Duela bederati urte Ttipi-Ttapa fundazioak 54.224,56 euro hartu zituen Nafarroako Gobernutik aldizkaria eta telebista finantzatzeko. Hamar urte geroago, foru administrazioetik nekez etorriko dira 1.000 euro fundazioak gaur egun kudeatzen dituen telebista, aldizkaria eta egunkari digitala finantzatzeko. Hamar urteko tarte horretan murrizketa etengabekoa izan da, baina, orain dela urte bat inork ez zuen pentsatuko laguntzak kasik osotara desagertzera ino murriztuko zirenik".

■ 2009an 9.567 euro bakarrik aurreikusi ditu Nafarroako Gobernuak euskarazko 31 komunikabideen artean banatzeko.



rrelako eskualde batean galtzea, hain dispertsatuta gaudenean gainera, kolpe latza da.

Eskualdea errotzeko baliagarria izan zen. Esperientzia izugarria izaten zen baserrietara edozer gauza grabatzera joaten ginenean. Telebistan ateratzen nintzenean, bertze gauzetarako ere baserrietara jotzen nuenean, sumatzen nuen bereziki adineko jendearentzat zein inportantzia zuen telebistak. Anitzetan erraten zidaten, "Herria ekarri didazue etxera, herrian gertatzen dena egun berean jakiten dut eta ez igandetan bakarrik, mezetara jaisten naizenean". Lotura hori galdu da, sare horiek ahuldu ta daude.

Pello Apezetxea. Beste alderdi bat azpimarratuko nuke, euskararena. Azken batean, eremu euskalduna da, baina horrek ez du erran nahi euskara segurtzat

eman behar denik. Ezta pentsatu ere. Nire ustez guraso askoren kontzientzia maila ez da handia. Oraindik ere asko eta asko erdaraz bizi da. Izaten ahal diren bide guztiak, bitarteko guztiak euskararen kontzientzia hori indartzen joateko kezkarakin bizi dugu.

Aipatu dut mahai honetan, aldizkariari esker, inoiz irakurri ez duenari euskaraz irakurtzeko aukera hori eman zaiola. Eta telebistarekin, berriz, inoiz jende aitzinean agertu ez dena agertu denean, bada, telebistan euskaraz hitz eginez agertu da. Horrek ere badu bertze erakargarritasun bat. Euskal mundu hori indartzen joateko euskarazko telebista inportantea da.

Jon Abril. Erreferentzialtasuna ere aipatu beharko genuke. Telebistak huts egitean, hanka batek huts egiten du euskarak duen erreferentzialtasunean. Alde ho-



rretatik pauso bat eman da gibelera.

Nafarroako Gobernuak dirulaguntzak ia osotasunean murriztu ditu. Hori erabakiorra izan da zuen azken erabakia hartzeko garaian. Zuetako inork ez duzue haserre edo amorrus hitz egiten. Ez duzue estilo horretan erantzun.

Jon Abril. Lehen ere loraldi izugarririk ez dugu ezagutu, eta orain laguntzak hutsaren hurrengoa dira. Gainbehera etengabekoa izan da. Iruña aldean ez digutela deus ere oparituko bizitzten ere ikasi dugu. Zer edo zer lortzekotan guk geuk landuta izanen da. Horregatik ez da gure diskurtsoan horrelakorik atera.

Pello Apezetxea. Tarteka, hala ere, haserre ateratzen zaigu.

Jon Abril. Bai, bai. Atera behar

da! Euskarabidean pertsona euskalduna paratu zutenean egoera makurragoa ez zela izanen nahikoa barneratu genuen. Hobeki seguraski ere ez, baina makurragoa ez. Bertze politika saldu zitzaigun eta bai, halaxe izan da, baina makurragoa erabat. Ni bederen inozenteegia izanen naiz, baina ez nuen espero mutur horretaraino eramanen zutenik hizkuntza politika.

Joxe Aranzabal. Gainera, ukatu egiten da dagoena. Zeren eta hutssean sortu beharko balitz... Baina ez, bi telebista daude. Beraz, ukazio hori oso gogorra da.

Joxemanuel Irigoien. Gogorra eta dirulaguntza kopurua bera oso mingarria da. 9.000 euro banatu behar dira kasik 40-50 euskal ekimenen artean. Alderatu kopuru hori Nafarroako hiru telebista pribatuen artean 3 milioi

Eskaera eta eskaintzak

Topagunearen inguruan koordinatuta, ahalegin ugari egin dira egoera berbideratzeko. Hala, 2008ko abenduaren 18an, Nafarroako Parlamentuko Hezkuntza Batzordearen aurrean egindako eskaera eta eskaintzak hasi dira garatzen azkeneko hila-beteotan. Hona hemen laburturik:

ESKAERAK:

1. 2009ko aurrekontuetan euskarazko hedabide guztientzat (egoera alegalean daudentzat ere bai) dirulaguntza duina egotea.
2. Hori teknikoki posible ez balitz, dirulaguntza duina jasotzeko bideak irekitzea.
3. Publizitate instituzionala euskarazko hedabideetan ere argitaratzea.
4. Euskarabidea –Euskararen Nafar Institutua– itxurakerietarako erabili beharrean, diruz eta edukiz hornitzea.
5. Euskarazko hedabideak egonkortze aldera, Gobernu eta hedabideen arteko hitzarmena egitea.

ESKAITZA:

Euskararen sustapenean euskarazko hedabide eta Nafarroako Gobernuaren arteko lankidetzaren sustatzea. Izan ere, hedabideen egoera egonkortzea guztiz premiazkoa da. Legeak horretara behartzen du Gobernu, eta hedabideok bide horretan lan egin nahi dugu.

Esanak



Legez onartuta dagoena eskatzen dugu, aldiz eskean gabiltzan irudia ematen ari dira”

Joxemanuel Irigoien



Gizartean honako irudia zabaldu da: euskarazko hedabideek laguntza publikoa beharrezko dute, besteak ez. Eta ez da egia”

Joxe Aranzabal



Inozentezia izanen naiz, ez nuen espero Nafarroan mutur horretaraino eramango zutenik hizkuntza politika”

Jon Abril



euroko kopuruarekin -Lizentzia autonomikoa duten Canal 4 eta 6, batetik, eta Popular TV toki-ko lizentziaduna-

Alegia, politikaren eskuhartzeak berebiziko eragina dauka argazki komunikatiboaren nondik norakoan. Determinismo politiko eta ekonomiko garbia da.

Joxe Aranzabal. Gizartean honako irudia zabaldu da: euskarazko hedabideek laguntza publikoa beharrezko dute, besteak ez. Eta ez da egia. Vocento, Prisa..., modu batera eta bestera sekulako dirutza eskuratzen ari dira instituzioetatik. Sekulako finantziario sareak dituzte. Baina ezkutatu egiten da hori.

Joxemanuel Irigoien. Legez onartuta dagoena eskatzen ari

gara, aldiz eskean gabiltzan irudia ematen ari dira. Zentzurik makurrenean gainera. Erdal hedabideekin legea aplikatzen da, euskaldunekin ez. Ez gara haiek baino gehiago eskatzen ari.

Komunikabide talde bezala, zein da gaur egungo egoera. Eta etorkizuna zein modutara aurreikusten duzue?

Joxemanuel Irigoien. Telebistari dagokionez, Ttipi-Ttapa eskualdeko telebista bakarra sortzearen aldeko ahalegina egiten ari da. Prozesua irekita dago, oraindik bukatu ez dena. Eta ez da erraza izango.

Frogatu da hamar urte hauetan kultur elkartetik eta fundaziotik sortutako proiektu ezberdinak gauzatu direla baina etorkizunari begira gabezia nabarmenak ditugu. Baliabide ekonomiko eskasak, batetik, eta telebista emisioa ziurtatzeko lizentzia, bestetik. Osagai horiekin, etorkizunari begira, nola erantzun eta nola egituratu aztertu beharko genuke eragile aktibo ezberdinen artean. Orain artekoa baino sendoagoa izan beharko luke. Prozesu irekia dago, ez sobera dinamikoa. Ttipi-Ttapa eta Xaloak bat egiten asmatu beharko lukete. Bestalde, Udalen inplikazio sakonagoa beharko litzateke. Uhinena ondasun publikoa da eta Udalen esku dago eskualderako lizentzia aukera eskatzea. Hauek ez dute eki-

men pribatukoekin lehiatu behar. Gaur egun, Nafarroako ipar-mendebale osoan ez dago lizentzia izateko aukerarik. Izatekotan, Udalek izango lukete bizi dugun egoera aldatzeko aukera. Barnera begira, telebistaren ikuspegitik, kezka horretan dago; non izanen den aitzinera begiratzeko irtenbidea.

Berriki plan estrategikoa egin genuen eta bertan telebista, Internet eta hamaboskaria aurreikusten ziren. Aldizkariak funtzionatzen duen artikulazioa duela ondorioztatu da eta, alde horretatik, ez da zertan aldatu behar. Oraingo horrela jarraitzea aurreikusten da, beharbada, Internet edizioa indartuz.

Etorkizunari begira, Joxe, zein joera egon daitezke medioei dagokionez? Telebistaren alternatiba Internet bidez iritsi al liteke?

Joxe Aranzabal. Hauek ez badute lortzen ohiko telebista sortzea, pilatu duten esperientziarekin



baliagarria izango zaie jakitea gaur egun hedabide taldeetan Internet sarearekin uztartzeko joera handia dagoela.

RTVE-k sekulako apostua egin du, adibidez.

Joxe Aranzabal. Sekulakoa, eta ondo egindakoa gainera. Dina-

Esanak



Telebistak huts egitean, hanka batek huts egiten du euskarak duen erreferentzialtasunean”

Jon Abril



Gaurko egunez Ttipi-Ttapa eskualdeko telebista bakarra sortzearen aldeko ahalegina egiten ari gara”

Joxemanuel Irigoien



Ez badute ohiko telebista sortzea lortzen, gaur egun hedabide taldeetan Internet sarearekin uztartzeko joera handia dago”

Joxe Aranzabal

Esanak



Gurea eremu euskalduna da, baina horrek ez du erran nahi euskara segurtzat eman behar denik”

Pello Apezetxea



Hiriguneen eta mendialdeko eremuen artean, teknologiar dagokionez, eten teknologikoa dago”

Joxemanuel Irigoien



Gazteak ohitzen ari dira eduki aberatsak kontsumitzera. Eduki aberatsak testuaz gain audioa eta irudia duten edukiak dira”

Joxe Aranzabal



mikoa da, edukiak etengabe berritzen ari dira eta nabigatzaileari erraza egiten zaio eduki horiek bilatzea. RTVE-k lan ona egin du alde horretatik. Nik uste EITB-k baino hobea.

Webgune horietan bideoak, audioak, testuak eta Internet loturak batera agertzen dira. Hori dena, geroz eta gehiago, modu bateratuan eta simultaneoki eskaintzen da. Geroz eta merkeagoa da, gainera, telebista Internetarako ekoiztea. Ttipi-Ttaparentzat bide bat hori izan liteke. Baliteke telebistatik ez edukitzea zirkulantzia politikoei aginduta. Baina horrek ez du kentzen Ttipi-Ttapak bideorik ez eskaintzea. Bidea hortik etor daiteke.

Urteak aurrera joan ahala, Internetaren erabilera gizartearen segmentu zabalagora hedatzen ari da.

Joxe Aranzabal. Geroz eta handiagoa, gainera. Geuk ikasleen

artein egin azterketaren arabera denek zuten segapotoa. %100 messenger programaren erabil-tzaile da, %90 tuenti-a, %60 fotolog-a, %30 facebook-a, %9a bloga... Gazteak ohitzen ari dira eduki aberatsak kontsumitzera. Eduki aberatsak testuaz gain audioa eta irudia duten edukiak dira. Irakaskuntzan gabiltzanontzat hori arazo bat da, irakasleok barririk testua erabiltzera ohituta gaudelako. Gaur egun ikasleei edukiak barneratzen kosta egiten zaie, guk modu bakarra eskaintzen diegulako.

Teknologia berrietan nik ikusten dut bide bat. Kanpotik ikusita, Ttipi-Ttapakook, ez duzue bideoak eskaini gabe geratu behar Internet baldin baduzue. Eta, gainera, seguru asko komeniko zaizue bideoak produzitzen segitzea Interneten sartzeko. Gaur egun EHUK badu bere telebista, HUHEZIK ere sortuko du berea. Youtube edo antzeko zerbait eta

Esanak



Gaztetxoak geroz eta gehiago telebista Youtuben kontsumitzen ari dira. Youtube estetika sortzen ari da”

Joxe Aranzabal



webgune bat izanez gero, dagoneko aukera baduzue bideoak eskegi eta emititzeko.

Nik neronek Kaliforniako euskaldunen inguruan egin zenituzten telebista programak gustura ikusiko nituzke. Ni ez naiz zuen emisioa ikustera iristen, baina Youtube-ren bidez aukera izango nuke.

Gaur egungo gaztetxoak geroz eta gehiago telebista Youtuben kontsumitzen ari dira. Youtube estetika sortzen ari da.

Joxemanuel Irigoien. Hori horrela da, gurean dagoen defizit teknologikoa arazo erantsia da. Internet sarearen sarbidea muga bat da, Etxalarren gaur da eguna ADSLa ez dagoena. Guk gure komunikaziorako kapazitatea Wimax erabiliz baliatzen dugu. Nafarroako ipar-mendebaldean Internet sarbidea gabezia bat da, datu hori azterketa ezberdinetan agertzen da.

Joxe Aranzabal. Etorkizunean

aparailu ona edukitzea baino garrantzitsuagoa izango da konexio ona izatea.

Joxemanuel Irigoien. Hiriguneen eta mendialdeko eremuen artean, teknologiar dagokionez, eten teknologikoa dago. Wimaxen erabileraz baliatzen ari gara, baina garestia da eta konexioak eten ugari ditu. Gehiago ordaindu behar da eta kalitatea txarra da. Hau oraindik orain arazoa da guretzat.

Bestalde, ezagutzen ditudan medio txikietatik ez du inork aipatzen diru sarrera aipagarririk. Publizitateari dagokionez, paperak badu transakzio ekonomikorako erraten ahal den balio sustantibo hori. Interneti dagokionez, zoritxarrez, pendiente dagoela iruditzen zait niri. Pertzepzio hori daukat. Modu masiboan eta tokiko hedabideen eskutik ez da oraindik horrelakorik gauzatu.

Joxe Aranzabal. Sortu da Internet sarean, baina ez euskaraz.



Euskal mundu hori indartzen joateko euskarazko telebista inportantea da”

Pello Apezetxea



Mahai honen bueltan gauden guztiak etorkin digitalak gara. Besteak natibo digitalak dira, nire ikasleak adibidez”

Joxe Aranzabal

Amerikako eskualdunak



2007ko urrian Ttipi Ttapa telebista Kalifornia eta Nevadako eskualdunen inguruko 17 programa emititzen hasi zen, "Euskal artzainak Ameriketara" titulupean. Erreportaje-sail hura Euskal Herriko beste zazpi herri telebistatan ere emititu zen. Goizalde Urdanpilleta eta Edurne Zubieta telebistako bi lankidek burutu zuten lana eta, besteak beste, sunbillatarak, baztandarrak edota lesakarrak elkarrizketatu zituzten. Artzain joandako jende aunitzeekin egoteko aukera izan zuten, eta euskal doinu eta dantzek ez zuten hutsik egin. Egonaldi hartan, gainera, San Frantziskoko Euskal Etxearen 25. urteurrena ospatu zen. Handik denbora batera, DVD modura argitaratu zen erreportaje sorta hura. Tokiko telebistak dituen medioak mugatuak direla kontuan hartuta, meritu handiko ekimena izan zen "Euskal Artzainak Ameriketara" erreportaje-sorta burutzea.



Zalantzan dagoena, orokorrean, modelo ekonomikoa da. Ez da artikulatu hemen. Inork ez du asmatu: New York Timesek ez du asmatu, El Paisek ere ez... Munduan mugarrak izan diren hedabideek ez dute asmatu. Betiko moduan, Interneten asmatzen ari dira Internet propio sortuta. Adibide baten bidez azalduko dut, demagun primizia bat daukadala eta primizia hori ematen hiru egun aguantatu behar dudala argitalpena inprentara eraman behar dudalako. Interneten ez dago horrela pentsatzerik. Horrela pentsatzen baduzu jai daukazu zeren eta beti egongo da norbait, askoz ekimen txikiagoa izanda ere, primizia hori aterako duena. Internetek beste modu batean pentsatzea eskatzen du. Sakrifikatu egin behar duzu nahi eta nahi ez papera. Baina zer gertatzen da? Paperean oinarritzen diren erakundeetan ez dutela ho-

rrera pentsatzen. Eta kosta egiten zaie hori onartzea, eta ez dute nahi! *-Nola egingo dut nik nire negozioaren kontra?* Argudio horrekin erreazionatzen ari dira. Berria, Argia..., medio horiek arazoak izango dituztela ikusten dut. Laster, gainera. Baina Goienera hobeto kokatuta ikusten dut. Esparrua oso ondo menderatzen du, eta oso ondo landuta daukana publikitate aldetik. Oinarria han bertan daukate. Ari dira Internet sarean produktu berriak sortzen. Blog komunitatea, beste merkatarientzat, haurren plataforma prestatzen dabilta orain. Ari dira. Zuentzat badakit zailagoa dela, Goienera eta Ttipi-Ttapa azpiegitura desberdinak direlako. Beste logika beharrezkoa da. Hemen gauden guztiak etorkin digitalak gara. Besteak natibo digitalak dira, nire ikasleak adibidez. Mp3 batekin hazi dira, mundu



digitalean. Eurentzat naturala da, gu berriz ikasten ari gara. Gu, alde horretatik, etorkinak gara. Ttipi-Ttapak eskualdeko gazteak bildu beharko lituzke eta Internet sarean zer egingo luketen galdetu. Eta gazte horiei babesa eman. Euskaltzaleak behar ditugu, horiek aterako dute zerbait. Zuek aita pontekoak bazarete, askoz hobe, asmatu duzue. Natibo digitalak erakarri behar dituzue zuen produktura.

Ttipi-Ttapak jaso duen Ohorezko Sariak batu gaitu hemen. Zer esan dezakezue?

Joxemanuel Irigoien. Pozez jaso dugu. Horrelako berri positiboak ondo hartzen dira. Momentu latzean harrapatu gaitu eta sentsazioak gazi-gozaok dira.

Pello Apeztegia. Egoera zailean prezeski ona da horrelakoak jasotzea. Etorkizunari begiratzeko xede horretan, Udalaz gaindi es-

perantza handirik ez daukat. Ttipi-Ttapak oinarri sendoa dauka eta sari bat jasotzeak herriaren aitzinean irudia hobetzea dakar. Hori ona dela uste dut.

Jon Abril. Justiziazkoa da. Goienera eta Ttipi-Ttapa erreferentzia izan dira gainerako euskarazko tokiko hedabideentzat. Momentu zailean horrelako errekonozimendua jasotzea Euskal Herrian kazetaritza saririk prestigiotsuena denaren eskutik, dudarik gabe, albiste pozgarria da. Egongo dira anitz merezi dutenak ere, baina orain dela ia 30 urte hasitako bideak izan duen eboluzioa, apostua..., berrikuntzarako gaitasun hori saritzeko modukoa badela uste dut.

Joxe Aranzabal. Ni ere ikaragarri pozten naiz. Oso ondo merezita dauka. Badago euskarazko komunikazioaren sektorearen partetik ere halako aitortpen ozena. Merezi duzue, eta zorionak!

Liderrak eskualdean



CIES etxeak Nafarroa Garaiko mendialdean 2009an egin duen lehen neurketaren arabera, idatzitako hedabideen artean Ttipi-Ttapa hamaboskariak ditu irakurle gehien. Alde handiarekin, gainera. Ttipi-Ttapa ondoren Guaixe Sakanako tokiko hedabidea nabarmentzen da.

Datuak eskuetan hartuta, Irigoieni eta enparauei arrazoirik ez zaie falta "Liderrak gure eskualdean" direla diotenean.

Hona, datuak, irakurle kopuruaren arabera:

1. Ttipi-Ttapa	23.000
2. Guaixe	15.000
3. D. Navarra	14.000
4. D. Noticias	9.000
5. Gara	6.000
6. Marca	2.000
7. Berria	1.000
8. Bertzeak	5.000

Adinaren arabera, haxe irakurleen banaketa:

20-24 urte	%5,7
25-34 urte	%33,2
35-44 urte	%17,1
45-54 urte	%13,1
55-64 urte	%16,3
+64 urte	%9,9

Ttipi-Ttapa ispiluan



Karmen Irizar

Topaguneko lehendakaria

Ispiluak traste arriskutsuak eta maltzurraz izan daitezke batzuetan. Anguloaren eta argiaren arabera azal leuna edo zimurtutako nia ikusten dugu hurbiltzen gatazkaizkionean. Eta zein erraza den norberak ikusi nahi duen hori baino ez ikustea! Onerako eta txarrerako. Horregatik komeni da, tarteka, besteek ispiluan nola ikusten gaituzten jakitea. Gure begiek ikusten ez dituzten argi printzek zer itxura ematen diguten jakiteko, eta guk ikusi uste dugun horretaz gain, ikusten ez ditugun beste ni batzuk ere badirela sentitzeko.

Nafarroako Gobernuak egoera hala behar-tuta garai zailak bizi dituzte euskarazko komunikabideek eta irudi luke laguntzarik ezean aurrera egin ezin duen proiektua dela euskararen inguruko oro. Hori da, ziurrenik, ispiluak erakusten duen irudirik argiena.

Distantzia pixka bat hartuta ordea, Nafarroako euskaldunentzat komunitate gisa garatu ahal izateko tresna direla ere ikusten da, identitateari eusteko bide, euskaraz bizi nahi dutenek hala egiteko sortu duten espazio propioa. Hori ere erakusten du ispiluak.

Egingo nuke, Ttipi-Ttapakoei irudi kontrajarriak iristen zaizkiela ispilutik. Etsipenaren is-larekin batera, amorrua ere begira dutela, alfe-

rikako ahalegina izango den sentipenak talka egiten duela ispiluan, aurrera egiteko grinarekin. Eta hori guztia ispilu berak erakusten die.

Are distantzia handiagotik begira, Ttipi-Ttaparen ispiluak haien ekarpenik gabe euskal komunitateak euskaratik urrunago lego-keen bidea hartuko zuela ikusi duen Andoaingo udala dago. Haien bizi nahiak, egitasmoak eta erakundeak euskarazko kazetaritzari saritzea merezi duen ekarpena egin duela ikusi du norbaitek ispilu berean.

Nago ispiluak islatzen dituen irudi guztiak direla egiazko, guztiak islatzen dutela Ttipi-Ttapa neurri batean edo bestean. Eta irudi guztiei erreparatuta bakarrik uler daitekeela Ttipi-Ttaparen izatea eta malkartsua aurreikusten den etorkizuna leuntzeko hasi duten bidea.

Sariek ez dute eguneroko bidea askorik errazten, baina errekonozimenduak ematen digu geure buruari askotan ikusten ez dizkiogun bertuteen neurria. Bihoakizue Rikardo Arregi sariarekin batera, beste euskara elkar-teon eskerrona ere, zuen katebegiak eusten diolako geureari ere, zuek gabe, tokiko euskarazko prentsa ahulago bailitzateke, eta euskal komunitateak eta gutako bakoitzak bizitzeko eta sentitzeko modu bat galduko bailuke.

Hala esaten dit, niri behintzat, zuen ispiluak. Bejondeizuela!

Rikardo Arregi Kazetaritza Saria



Ohorezko aipamenak

1989	I. edizioa	<i>Eskualduna/Herria</i> 102 urte
1996	VIII. edizioa	Gerra garaiko kazetariak
1997	IX. edizioa	Martin Ugalde
1998	X. edizioa	<i>Herri Irratia Donostia-Loiola</i> (Juan Lekuona / Ignacio Arregi)
2001	XIII. edizioa	Xipri Arbelbide
2002	XIV. edizioa	Estatu Batuetako Euskarazko Kazetaritza aitzindaria (KBBS, egunkariak)
2003	XV. edizioa	Historian zehar euskara hutsean kaleratu diren egunkariak. <i>Eguna, Euskaldunon Egunkaria eta Berria</i>
2004	XVI. edizioa	Ramon Labaien
2005	XVII. edizioa	Luzien Etxezaharreta eta Martxelo Otamendi
2006	XVIII. edizioa	Pello Zabala
2007	XIX. edizioa	Joan Mari Torrealldai
2008	XX. edizioa	Jose Mari Iriondo



XXI. Rikardo Arregi Kazetaritza Saria 2008/09

Ekialdetik mendebaldera
hegoaldetik ifarraldera
Topagunea ttipi-ttapa





Gipuzkoako Foru Aldundia

*Zorionak
Ttipi-Ttapakoen
ahaleginari!*

t
t **i** **p** **i**
t **t** **a** **p** **a**